

NARRATIBA

Ikusten ez denaz

OSPITALEKOAK

Mikel Antza
Susa, 2010
233 orrialde. 18,50 euro

Iban BALERDI

«Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko, alferrrikakoa da esertzea idazteko». Thorearen aipu hau agertzen da liburuaren hasieran eta badirudi autoreak ere hauxe izan duela gogoan hainbeste urte literaturatik aparte xamar ibiltzeko. Gogotsu bueltatu dela ere esaten du, Mikel eleberriko pertsonaia nagusiaren eskutik. Edo hori iruditu zait behintzat. Ez baitago oso argi zenbait zati egiazkoak ala asmatuak diren.

Izan ere, idazle orok erabiltzen du nolabait bere errealitatea sortzen hasten denean. Kasu honetan, argi dago parte bat benetakoa dela (Mikel preso dago Fresnesen, lehen aritua da idazten, donostiarra da...) baina ez dakigu noraino. Beste parte bat, ordea, fikzioa da. Nahasketa hau nahita egindako zerbait dela pentsa daiteke, izen ezaguna izatearen faktorea jolasteko erabili duela, besteekiko jakin-minak zenbateraino harrapatzen gaituen erakutsi nahi izan duela; eta honek, irakurtzen ari zaren bitartean zalantzarik eragin dezakeen arren, amaiera aldera askatzen ditu korapiloetako batzuk. Ondo borobildutako bukaera iritzi diot gainera, ondo egindako bideak merezi zuenaren tamainakoa.

Liburua bikotekideari idatzitako kronika moduan dago egituratua. Protagonista



espetszeko ospitalera eraman dute osasun arazo txiki bat konpontzeko, baina ezustean, gurpil aulkian ibili beharrean aurkitu du bere burua eta bertan ekingo dio idazteari. Gertakizun desberdinen berri emanez, kapitulu batek hurrengoari egiten dio bidea, hau da, ideia batekin bukatzen badi, hori lantzen du datorrenean, orainaldiko eta iraganekoak nahastuz. Bizitzari erreparoa ematen dio, jaiotzea, erdi ezkutu ikastolako egunak, gaztaroko printzak, atxilotze bezperako oroitzapenak edota kartzela barruko bizipenak kontatuz. Horrez gain, beste zenbait pertsonaiaren berri ere ematen digu, hala nola 36ko Gerran borrokatutako Xabier gudaria eta

Veronique, Dimitri eta Jean Noel-ek osatzen duten hirukotea. Hauek guztiak ere garrantzitsuak dira nobelan, Mikelekin lotura dutelako ospitaleratze garaian zehar.

«Hor kanpoko munduarentzat ez gara existitzen; egunero La Coupole-n, Boulevard-ean edo Zazpi Kaleetako edozein tabernatan eguerdiko kafetxoa hartzeko ohitura duen hiritar arruntarentzat ikusezin gara, ozeano sakonenetako izakiak bezain». Ikusten ez den mundu bat deskribatzen du, espetsxe barruko mundua. Alboko unibertso honi buruzko hausnarketak egiten ditu, guztia zein estua den edo zenbateraino dagoen programatua egunerokotasuna. Estatuak eta sistemak nola erabiltzen duten kartzela jendea isilarazi eta norbanakoa akabatzen. Krimen perfektu gisa deskribatzen da, komunikabide gehienetan oihartzunik izango ez duena, presoak bere buruaz beste egiten duenean ez omen dago-eta hilketarik.

Gaur egungo bizimoduaren abiadurari buruz ere egiten du gogoetarik. Hain azkar bizitzeak egoerak modu orokorragoan ikustea eragozten digu, eta egiten dugunaren zentzuaz ez dugu hausnartzen. «Mundutik isolatzeko gaitasuna dutenez gain, ermitauek eta kartzelan bakartuek dute soilik denbora halakoetarako». Paradoxa galanta, existitzen ez direnek indar gutxi baitute ezer aldatzeko.

Gustura irakurtzen den nobela iruditu zait, harrapatzen duena eta zer pentsatu ugari ematen duena. Literaturari ale berriak emateko moduan dagoela erakutsi du Mikel Antzak hainbeste urteren ondoren.



Mikel IBARGUREN

Bazen behin

Munduan beste asko bezala, bazen behin, Zegama izeneko herri txiki bat. Eta bertan sortu zen, diotenez, urteak pasa ahala handitzen ez zen ipuin kontalaria. Edo beste era batera esanda: gazte sentitzeko zahartu egin nahi zuen idazlea.

Mendiez haragora zer ote zegoen galdetzen zion bere buruari, halako batean mundua deskubritu zuen arte. Apurka, bizitzari buruzko hausnarrean hasi zen, natura bizigai zuela, eta hortik hitza jolas bihurtu zuen; hitza zen poemaren hazia eta, beraz, poemak ereiten hasi zen hantemenka guztion irudimenak elikatuz. Bizitzaren iturritik ur garbia edan genezan.

Gaur egungo umeen fantasia-lekua ez zela ipuina irakurri nion duela gutxi, leku hori telebistak edo Internetek lapurtu ziotela baitzioen. Alta, fantasia lagun ontzat zeukan berak, existitzen ez direnak irudikatzen edo egiazkoak idealizatzen eman baitzuen bizitzaren gehiena. Beti idazten, simple eta sakon aldi berean. Ilunordu bakoitzeko, argilaurden baten eske. Tristuraren itzala eta itxaropenaren argia nahastuz.

Beti pentsatu izan dut ipuinak ez direla haurrak lokartzeko, helduak esnarazteko baizik; ipuinak ez duela adinik eta ametsaren atea ireki ahal izateko giltza duela eskaintzen. Badu esplikatzeko zaila den zerbait. Abiapuntua zeharo arrunta duen kontakizunak, ohartu gabe, ukitu magikoa hartzen baitu amaieran. Eta munduan, beste askok bezala, Joxan Ormazabalek ere, ipuinak poema bihurtzen zituen eta poemak ipuin. Horregatik itotzen gaitu barruan daramagun haur horren negar zotinak "Ehun ipuin hitz gutxitan" irakurtzean, hitz gutxitan dena esateko dohain aparta baitzeukan. Baina bada, diotenez, hor mendialdean, putzu ilun bat, non denbora gelditzen den. Bada inork aurkitu ezin duen zuhaitz erraldoi bat ere. Agian orain aurkituko zuen.

Hala bazan, ez bazan, sar dadila amets handian eta ager dadila eguzkiaren aurretik datorren egunsentian.

KALERATU BERRIAK



CUENTOS UNIVERSALES

LOS VOLADORES
Peter Stamm
Acantilado, 2010
175 páginas. 16 euros

Peter Stamm, una de las voces más destacadas de la nueva narrativa en lengua alemana, vuelve a sorprender con su nuevo libro de cuentos. Doce relatos que dibujan lo que nos distancia cada día en nuestras relaciones humanas: la suerte inalcanzable, lo inesperado de la vida y la melancolía por el amor perdido.



ANTE EL DOLOR DE UNA PÉRDIDA

TIEMPO DE VIDA
Marcos Giralte Torrente
Anagrama, 2010
208 páginas. 17 euros

El escritor madrileño se enfrenta a un tema tan delicado como es la muerte de un padre. Partiendo del dolor por la pérdida, el autor reconstruye la relación con su padre, es decir, «el tiempo de vida» que compartió con él. El resultado es un libro conmovedor que habla de la relación más compleja entre dos personas.



BARROTE ARTEKO LITERATURA

EZ DAGO ETXEAN
Jokin Urain
Susa, 2010
190 orrialde. 17 euro

Euskal presoan artean ez dira gutxi izan literatura egiten, testigantzak uzten edo besterik gabe, idazten aritu direnak. Kartzeletako euskal literatura emankor horren ibilbide sakona da "Ez dago etxean". Jokin Urain (Mendaro, 1959), 1986tik preso dagoen idazlea da eta hauxe du bere bosgarren liburua.



GAUR EGUNGO GIZAKIAREN POEMAK

ANPHORA BAITA
Pello Otxoteko
Alberdania, 2010.
100 orrialde. 14 euro

Otxotekoren (Irun, 1970) poesia liburu berria da hau, poesia eta pentsamendua uztartzen dituen lana. Poema laburrak dira, gogoeta eragitea helburu dutenak, batzuek aforismoen tankera dutelarik. Iparrik gabe dabilen gizakiaren barruan arakatu du Otxotekok, Aitor Espiek eginiko ilustrazioez lagundurik.